

## UDA-BERRIYA

Argi illun illun bat  
Alboan nuela  
Argiya bañon illun  
Geiago zuela  
Egoten nitzan. Arrats  
Egun-bagekuak  
Igaro ziran, zeren...  
Ziran negukuak.

Gauza pozgarriya da,  
Oso da alaya,  
Illun-arte luzia  
Dakarren garaya:  
Orduan eguzkiya  
Azal da nagusi,  
Bereztutzen duela  
Lurra, ur ta guzi.

Choriñua asten da  
Salto eta salto  
*Chirri-chiu*, egiñaz  
Asko ere asko.  
Apaintzen da ederki  
Soro zelaizkua;  
Usandu, baratz lorez  
Josiyetakua.

Uda-berriya, gauza  
Atsegiña zera,  
¿Nola ez baldiñ uda  
Aurrea bazera?  
Zeruari-re sarri  
Deritzayo uda;  
Ura, zu ezpada-re  
zu zerade ura.

MIGEL ANTONIO IÑARRA-K.